

## MUSIKA-MÚSICA 2021 JAIALDIAK URIKO HAINBAT GUNETARA ZABALDUKO DA LEHEN ALDIZ, ETA BILBO VIENAKO MUSIKAZ BETEKO DU

- Juan Mari Aburto alkateak iragarri du aurtengo edizioan eta berrikuntza gisa, Euskalduna Jauregiak gain, Azkuna Zentroa, Elkarte Filarmonikoa eta UPV/EHUREN Bizkaia Aretoa ere jaialdiaren egoitza izango direla.
- Mozart, Beethoven, Schubert, Haydn, Brahms edo Mahler, besteak beste, 36 kontzertutan egongo dira ordezkaturata martxoaren lehen asteburuan, martxoaren 5etik 7ra.
- Irekiera kontzertua hilaren 5ean izango da, 19:00etan, Euskalduna Jauregian, eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS) emango du, Bilboko Koral Elkarte, Miren Urbietta-Vega sopranoa, Ainhoa Zubillaga mezzosopranoa, Mikeldi Atxalandabaso tenorea eta Jose Antonio López baritonoarekin batera. Interpretatuko duten obra Beethovenen *9. sinfonia re minorrean opus 125 'Coral' ospetsua izango da.*
- Sarrerak zenbakituta egongo dira eta 6 eta 12 euro artean jarriko dira salgai, otsailaren 24an, eguaztena, Euskalduna Jauregiko leihatiletan eta webgunean, baita Kutxabanken zerbitzu anitzeko kutxazainetan eta kontzertu-aretoetan ere, emanaldi bakoitza hasi baino ordu erdi lehenago.
- Jaialdiaren antolakuntzak zorrotz beteko du COVID-19ren aurkako osasun-araudia, artisten eta ikusleen segurtasuna bermatzeko helburuarekin.

(*Bilbon, 2021eko otsailaren 22an*).- **Juan Mari Aburto** Bilboko alkateak, **Gonzalo Olabarria** Kultura zinegotziarekin batera, Musika-Música Jaialdiaren XX. edizioa aurkeztu du gaur goizean Bilboko Udaletxeko Arabiar Aretoan. Jaialdia martxoaren 5ean, 6an, eta 7an egingo da.

Jaialdia, Bilboko Udalak antolatua, **urian zehar ibiliko da lehen aldiz**, eta **Euskalduna Jauregian** ez ezik, aurreko urteetan bezala, **Bilboko Azkuna Zentroa-Alhondigako auditorioetan**, **Bilboko Elkarte Filarmonikoan** eta **Bizkaia Aretoan** (UPV/EHU) ere emango ditu kontzertuak. Vienari eskainitako Musika-Musica jaialdiak agertoki berri horietan joko du eta Vienako musikaz beteko ditu uriko beste txoko horiek.

Alkateak aurkezpenean iragarri duen bezala, "*Bilbo musikaren Europako hiriburua izango da berriz ere, eta musika edizio honetan omentzen dugun Vienak bezala bizi duen hiri batek zer sentitzen duen erakutsiko dugu. Vienako musikan aukera paregabea aurkituko dugu, ordu batzuegatik bada ere, bizi dugun egoera zail eta luze honetatik ihes egiteko. Aurten, Musika-Música jaialdia Bilbora zabalduko da, eta ihes horretarako aukera paregabea eskainiko die bilbotarrei, goi mailako kulturaren bidez, era gure uritik atera*

*gabe". Aburtok gaineratu duenez, "Musika-Musicak presentzia handiagoa bilatzen du urian, musika eta kultura jendearengana are gehiago hurbilduko duten kokapen berriekin".*

Bestalde, beste edizio batzuetan garatutako ildotik, Gonzalo Olabarriak Udalak bere programazio kultural osoan tokiko talentuaren alde egiten duen apustua azpimarratu du: *"Musika-Musicak beti egin du kalitatearen aldeko apustua, eta harrotasunez esan dezakegu Bilbok orkestra sinfonikoa, elkarte korala eta artista garrantzitsu ugari dituela. Abeslari gehienak Euskal Herrikoak dira eta aurten, gainera, Iker Sanchezek zuzendutako Bilbao Sinfonietta orkestrak lehenengo aldiz joko du. Eta nola ez, Udal Banda ere arituko da."*

## **BILBO VIENA IZANGO DA**

**Vienako hiria**, musikaren hiriburu nagusia, aukeratu dute edizio honetako protagonista izateko. Hala, 2019an Londresekin eta New Yorkekin hasi eta 2020an Parisekin segitu zuen zikloa itxi da. Bilbo Vienaren pareko bihurtuko da eta martxoko lehen asteburuan musikaren hiriburu bilakatuko da. Mozart, Beethoven, Schubert, Haydn, Brahms eta Mahler, besteak beste, 'egongo dira' hirian hiru egunez, musikaren festa ospatzen.

Bilboko Udalak **36 kontzertu** programatu ditu aurtengo ediziorako. Lehenengoa, **irekierakoa, barikuan, martxoak 5, izango da, 19:00etan, Euskalduna Jauregiko Auditorioan**, eta BOSen (Giancarlo Guerreroren zuzendaritzapean) esku egongo da, Bilboko Koral Elkarte, Miren Urbieta-Vega sopranoa, Ainhoa Zubillaga mezzosopranoa, Mikeldi Lopez tenorea eta Ainhoa Zubillaga mezzosopranoarekin batera. Interpretatuko duten obra Beethovenen **9. Sinfonia re minorrean opus 125 'Coral'** ospetsua izango da.

**Era berean, nabarmentzekoa da martxoaren 7an, domeka, 19:30ean, Euskalduna Jauregiko Auditorioan, Mozarten Requiem re minorrean K.626** obraren emanaldia, Iker Sanchezek zuzenduko duen **Bilbao Sinfonietta** orkestrak interpretatuko duena, Bilboko Koral Elkarte, Vanessa Goikoetxea sopranoa, Maite Maruri mezzosopranoa, David Alegret tenorea eta Christopher Robertson baritonoarekin batera.

Bestalde, hilaren 6an eta 7an, Elkarte Filarmonikoan, **Les Dissonances** orkestra europarrak, David Grimalen gidaritzapean, Mozarten biolinerako kontzertuen integrala interpretatuko du eta Azkuna Zentroan, berriz, **J W [ Ensemble-k** Mozart eta Beethovenen haizerako kintetoak joko ditu.

Jaialdiaren hogeigarren edizio honetako beste emanaldi aipagarri bat martxoaren 6an izango da, zapatua, 19:30ean, **Gustav Mahlerren 4. sinfonia sol maiorrean**, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren (OSE) eskutik, Serena Saenz sopranoarekin batera, Semyon Bychkov zuzendariaren agindupean.

Musika-Músican lehen aldiz arituko dira **Trío VibrArt** hirukotea eta **Juan Perez Floristan** pianista.

## **KONTSERBATORIOAK, FAMILIAK ETA ZINEA**

**Kontserbatorioetako kontzertuetarako** toki bat ere egongo da, Barakaldoko Udal Kontserbatorio Profesionaleko Orkestraren eta Bilboko Koral Elkartea-Jesus Guridi Orkestraren eskutik, nahiz eta aurtengo segurtasun neurriak direla medio, mugatuak izango diren.

Edizio honetan familientzako emanaldietarako gune bat ere badago, alde batetik, **Companya Princep Totilau-ren** eskutik, publiko guztiarentzako **Mozartland** ikuskizunarekin, 3 urtetik aurrera; eta, bestetik, **Orthemis Orkestraren** eskutik, **“A tempo d’umore”** obra komiko eta musikala, Mozart, Beethoven, Schubert eta J. Straussen musikarekin.

Zinemak protagonismoa izango du berriro ere jaialdian: **“Vienako musika Pantaila Handian”**, Kubrick, Polanski, Visconti eta Daldryren filmei buruzko elkarrizketa eta **“Zineak Mozart maite du”**, Austriako jenioaren musikan zehar bidaiatzen duena **“Afrikako oroitzapenak (Out of Africa)”**, **“Closer”**, **“Elvira Madigan”** eta **“Bizi arteko zigorra (The Shawshank Redemption)”** filmen bidez.

## **ELENA ODRIOZOLA KARTELAREN EGILE**

**Musika-Música 2021 Jaialdiaren irudia Elena Odriozola ilustratzaile donostiarrak egin du.** Bera da nazioartean osperik handienetakoa duen marrazkilarietako bat, ikusi besterik ez dago bere lan oparoa eta Estatuan nahiz nazioartean eman dizkioten sariak eta agertu dizkioten ezagutzak. Sarien artean, besteak beste: Literaturako Euskadi Saria, marrazkiengatik (2009, 2013), Marrazkigintzako Estatuko Saria (2015), eta Irudiztapenari buruzko Bratislavako Biurterokoaren Urrezko Sagarra (2015).

Oraingo aldi honetan, **Elena Odriozolak Viena irudikatu du kartelean, eta, irudikatu ere, Austriako hiriburuan bildu zen musikazko jeinutasun guztia iradoki zuen musaren gisa.**

## **COVID-10AREN AURREKO PROTOKOLOA**

Jaialdiaren antolatzaileek zorrotz-zorrotz betearaziko dute Covid-19aren pandemiaren ondorioz izan litezkeen arriskuak eragoztearren osasun agintariek ezarriko duketen araudia, besteak beste, maskara nahitaez erabiltzea, sarreran esleitutako lekuan egotea eta langileen gomendioei uneoro jarraitzea.

## **SARREREN SALMENTA**

Sarrerren salmenta **otsailaren 24an, eguaztenean**, hasiko da

- **Euskalduna Jauregiko leihatilak**

Astelehenetik zapatara:

12:00-14:00h. / 17:00-20:00h.

[www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus)

- **Kutxabank-eko zerbitzu anitzeko kutxazainetan.**
- **Kontzertu-aretoetan, emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago.** Azkuna Zentroa  
- Bizkaia Aretoa – Bilboko Koral Elkartea.

## **SARE SOZIALAK**

- Bilbao Udala: [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- Bilbao Kultura: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

**#MusikaMúsica2021**

[www.bilbao.eus/musika-musica/2021/](http://www.bilbao.eus/musika-musica/2021/)

## EL FESTIVAL MUSIKA-MÚSICA 2021 RECORRERÁ POR PRIMERA VEZ DIFERENTES ESPACIOS DE LA CIUDAD E INUNNDARÁ BILBAO DE MÚSICA DE VIENA

- El Alcalde Juan Mari Aburto ha anunciado que en esta edición y, como novedad, además del Palacio Euskalduna, también serán sede del Festival Azkuna Zentroa, la Sociedad Filarmónica y Bizkaia Aretoa UPV/EHU.
- Mozart, Beethoven, Schubert, Haydn, Brahms y Mahler, entre otros compositores, estarán representados en 36 conciertos el primer fin de semana de marzo, del 5 al 7 de marzo.
- El concierto de apertura tendrá lugar el día 5, a las 19:00 horas, en el Palacio Euskalduna y correrá a cargo de la Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS), junto a la Sociedad Coral de Bilbao, la soprano Miren Urbietta-Vega, la mezzosoprano Ainhoa Zubillaga, el tenor Mikeldi Atxalandabaso y el barítono José Antonio López. La obra que interpretarán será la celeberrima *Sinfonía nº 9 en re menor opus 125 'Coral' de Beethoven*.
- Las entradas serán numeradas y se pondrán a la venta, entre 6 y 12 euros, el miércoles, 24 de febrero, en las taquillas del Palacio Euskalduna y en su [web](#), también en los cajeros multiservicio de Kutxabank y en las salas de los conciertos, media hora antes del inicio de cada actuación.
- La organización del Festival cumplirá de manera rigurosa la normativa sanitaria frente al COVID-19 con el objetivo de garantizar la seguridad de artistas y público.

(Bilbao, a 22 de febrero de 2021).- El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, acompañado del Concejald de Cultura y Gobernanza, **Gonzalo Olabarria**, ha presentado esta mañana, en el Salón Árabe del Consistorio, la vigésima edición de **Festival Musika-Música**, que se celebrará los días 5, 6 y 7 de marzo en la Villa.

El Festival, organizado por el Ayuntamiento de Bilbao, **se abre por primera vez a la ciudad** y celebrará sus conciertos además de en el **Palacio Euskalduna**, como en años anteriores, en los auditorios de **Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbao**, **la Sociedad Filarmónica de Bilbao** y **Bizkaia Aretoa UPV/EHU**. Musika-Música, que dedica esta edición a Viena, sonará en estos nuevos escenarios e inundará de música vienesa diferentes rincones de la Villa.

Como lo ha anunciado el Alcalde, durante la presentación, *“Bilbao será de nuevo la capital europea de la música y será una muestra de lo que siente una ciudad que vive la música como Viena, urbe homenajeadada en esta edición”*. Aburto ha hecho alusión al significado de este gran evento cultural en el contexto actual, *“en la música vienesa*

*encontraremos una ocasión única, -aunque sea por unas horas-, de evadirnos de esta complicada, y -larga ya-, situación que estamos viviendo. Este año, Musika-Música se abre a Bilbao y ofrece a bilbainas y bilbainos una oportunidad única para esa evasión a través de la cultura con mayúsculas, la que nos brinda este Festival sin salir de nuestra Villa". En este sentido, Aburto ha añadido que "Musika-Música busca así mayor presencia en la ciudad, con nuevas ubicaciones que acerquen, aún más, la música y la cultura al público".*

Por su parte, en la línea desarrollada en otras ediciones, Gonzalo Olabarria ha incidido en la apuesta que hace el Ayuntamiento en toda su programación cultural por el talento local, *"Musika-Música siempre ha apostado por la calidad y con orgullo podemos presumir que en Bilbao contamos con una orquesta sinfónica, una sociedad coral y un gran número de destacados artistas. La mayoría de las voces que actuarán son de Euskadi y además, este año, se estrenará en el auditorio la orquesta BilbaoSinfonietta, dirigida por Iker Sánchez. Y como no podía ser de otra manera actuará también la Banda Municipal."*

## **BILBAO SERÁ VIENA**

**La ciudad de Viena**, capital de la música por excelencia, ha sido la elegida para protagonizar la presente edición cerrando así el ciclo que comenzara en 2019 con Londres y Nueva York y en 2020 con París. Bilbao emulará a Viena y se convertirá durante el primer fin de semana de marzo en la capital de la música y sus máximos exponentes **Mozart, Beethoven, Schubert, Haydn, Brahms o Mahler**, entre otros, estarán 'presentes' en la Villa durante tres días celebrando la fiesta de la música.

El Ayuntamiento de Bilbao ha programado para esta edición **36 conciertos**, el primero de ellos, el de **apertura, tendrá lugar el viernes, 5 de marzo, a las 19:00 horas en el Auditorio del Palacio Euskalduna** y correrá a cargo de la BOS (bajo la dirección de Giancarlo Guerrero), junto a la Sociedad Coral de Bilbao, la soprano Miren Urbieta-Vega, la mezzosoprano Ainhoa Zubillaga, el tenor Mikeldi Atxalandabaso y el barítono José Antonio López. La obra que interpretarán será la celeberrima **Sinfonía nº 9 en re menor opus 125 'Coral' de Beethoven**.

**Asimismo, destaca la actuación del domingo 7 de marzo, a las 19:30 horas, en el Auditorio del Palacio Euskalduna, el Réquiem en re menor K.626 de Mozart** que será interpretado por la orquesta **Bilbao Sinfonietta**, dirigida por Iker Sánchez, junto a la Sociedad Coral de Bilbao y la soprano Vanessa Goikoetxea, la mezzosoprano Maite Maruri, el tenor David Alegret y el barítono Christopher Robertson.

Por su parte, el sábado 6 y el domingo 7, en la Sociedad Filarmónica la orquesta europea **Les Dissonances** interpretará, bajo la batuta de David Grimal, la integral de conciertos para violín de Mozart y en Azkuna Zentroa el **W [ Ensemble** ejecutará los quintetos para viento de Mozart y Beethoven.

Una cita señalada de esta edición veinte del **Festival** será el **sábado 6 de marzo, a las 19:30 horas**, la *Sinfonía nº 4 en sol mayor* de **Gustav Mahler** a cargo de la Orquesta Sinfónica de Euskadi (OSE), junto a la soprano Serena Sáenz, a la órdenes del director Semyon Bychkov.

Además, por primera vez en Musika-Música, actuarán el **Trío VibrArt** y el pianista **Juan Pérez Floristán**.

### **CONSERVATORIOS, FAMILIAS Y CINE**

También habrá un lugar para los **conciertos de conservatorios** a cargo de la Orquesta del Conservatorio Municipal Profesional de Barakaldo y la Sociedad Coral de Bilbao-Jesús Guridi Orkestra, aunque por la medidas de seguridad de este año se desarrollarán de manera restringida.

En esta edición también hay un espacio para las **actuaciones para familias**, por un lado, a cargo de la **Companyia Príncipe Totilau** con el espectáculo para todos los públicos, a partir de los 3 años, **'Mozartland'**; y, por otro lado, de la **Orthemis Orquestra** que ofrecerá su obra cómica y musical, **"A tempo d'umore"** con música de Mozart, Beethoven, Schubert y J. Strauss.

El **Cine** volverá a tener su protagonismo en el Festival con **'Música de Viena en la Gran Pantalla'**, un diálogo sobre películas de Kubrick, Polanski, Visconti y Daldry y el **'El cine ama a Mozart'**, que viaja por la música del genio austriaco a través de las películas **'Memorias de África'**, **"Closer"**, **"Elvira Madigan"** y **"Cadena Perpetua"**.

### **ELENA ODRIOZOLA, AUTORA DEL CARTEL**

Como ya se anunció en una rueda de prensa celebrada en el pasado mes de julio, la **imagen del Festival Musika- Musica 2021 es obra de la ilustradora donostiarra Elena Odriozola**. Una de las ilustradoras de mayor proyección internacional, a juzgar por su extensa obra y por los premios y reconocimientos recibidos tanto en el Estado como a nivel internacional. Entre otros galardones que le han sido otorgados están el Premio Euskadi de Literatura por la ilustración (2009 y 2013), el Premio Nacional de Ilustración (2015) y la Manzana de Oro de la Bienal de Ilustración de Bratislava (2015).

Para esta ocasión, **Elena Odriozola ha representado a Viena en el cartel como la musa inspiradora de toda la genialidad musical que acogió la ciudad austriaca**.

### **PROTOCOLO ANTE EL COVID-19**

La organización del Festival cumplirá de manera rigurosa la normativa que las autoridades sanitarias dicten con el objetivo de prevenir los posibles riesgos debido a la epidemia causada por el COVID-19, entre otras, uso obligatorio de mascarilla, permanecer en el sitio asignado en la entrada y atender en todo momento las recomendaciones del personal staff.

## **VENTA DE ENTRADAS**

La venta de entradas **comienza el miércoles 24 de febrero.**

- **Taquillas del Palacio Euskalduna**  
De lunes a sábado  
12:00-14:00h. / 17:00-20:00h.  
[www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus)
- **En los cajeros multiservicio de Kutxabank**
- **En las salas de los conciertos media hora antes del inicio de la actuación.**  
Azkuna Zentroa - Bizkaia Aretoa - Sociedad Filarmónica de Bilbao.

## **REDES SOCIALES**

- Bilbao Udala: [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- Bilbao Kultura: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

**#MusikaMúsica2021**

[www.bilbao.eus/musika-musica/2021/](http://www.bilbao.eus/musika-musica/2021/)